

Untza mendi taldea: 30 años entre nosotros

Hoy en día cuenta con 50 socios de toda Bizkaia

Untza Mendi taldeak 30 urte bete ditu aurten eta energiaz ospatu dute urte muga berezia. Herrian oso ezaguna den taldea da baina gutxiak dakite zein urtetan sortu zen. Taldea, 1980. urtean jaio zen eta bide bikaina erailki zuen, taldearen xedea natura orokorrean eta mendia maitatzea zen eta horregatik, igandero txango bereziak antolatzen hasi ziren. 6 urte beranduago, 1986. urtean, beherrakada garrantzitsua izan zuen eta taldea "krisi" berezia batean sartu zen, baina kide eta laguntzaileen fedeari esker gora egín zuen gaur arte.

Egun, 50 kide ditu eta herriko jendeaz gain bailarako jende nabari ere bada mendien admiratzaile sutsu. Horrez gain erlazioa paregabera da, guztiek baitaukatete xede bera, naturaren gako errespetua lantzeko helburua. Nahiz eta belaunaldi errelebuak mehatxu bat suposatzen duen, taldeak hamaika ekintza gauzatzen ditu urtean zehar, atsedeenik gabe. Urte hauetan hamaika ibilaldi berezi antolatu dituzte, Gorbeara, Urbe inguruko mendietara eta baita ere elurrera. Txangoak alde batera utziz, taldeak beste hainbat ekintza antolatzen ditu urtean zehar, argazki erakusketaketak eta ikusentzunezko produktuen proiektzioak beste gauza batzuen artean.

Lehen aipatu bezala, etorkizunak arduratu egiten ditu Untza Mendi Taldeko kideak, belaunaldi erre-

lebuaren laguntza eskasak kideen batz besteko adinak gorantz egiten baitu urtero. Hala ere bere lelopean "Ezagutu Euskadi parte hartuz" 30 urte gehiago irautea espero dute. Ilusioa eta gogoak soberan dituzte eta bidea jadanik hasia dute, nahiz eta etorkizunaren esperotan diren, Untza Mendi taldeak ibilbide luzea du oraindik egiteko, beraz hasi gaituzen elkarrekin gure ingurua ezagutzen.



El relevo generacional
preocupa al grupo



III Cementerio Rock, "Down Hill" Txapelketa



XXV Ibilaldi Neurua.



XV. Elkegaiten eta Eskulan Talaren Azoka (argazkia DA)

